

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### **Gasteizko Udalaren zerga, tasa eta prezio publikoak arautzen dituzten udal ordenantza fiskalak hizkera inklusibora moldatzeko aldakuntzari behin-behineko onespena ematea**

Gasteizko Udalaren zerga, tasa eta prezio publikoak arautzen dituzten udal ordenantza fiskalak hizkera inklusibora moldatzeko aldakuntzari behin-behineko onespena ematea erabaki du Gasteizko udalbatzak 2021eko urriaren 8an egindako osoko bilkuran.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren ildotik, testu osoak San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea— jendaurrean egongo direla jakinarazten da, interesdunek aukera izan dezaten dosierra aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik.

Helbide elektroniko honen bitartez ere lortu ahal izango da dosierraren edukiari buruzko informazioa: [ordenanzas.fiscales@vitoria-gasteiz.org](mailto:ordenanzas.fiscales@vitoria-gasteiz.org). 2021eko azaroaren 29an bukatuko da erakustaldia. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betikotzat joko dira ordura arte behin behinekoak ziren erabakiak.

Orobat egongo da eskuragarri hemen: [www.vitoria-gasteiz.org/zergak](http://www.vitoria-gasteiz.org/zergak).

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 8an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE